Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

834

AGINDUA, 2009ko azaroaren 20koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, garapen-lankidetzarako «Ignacio Ellacuria» sariaren 2009ko edizioa ebazten duena.

Garapen-lankidetzarako «Ignacio Ellacuría» saria sortu eta arautzen duen azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuan eta sari horren 2009ko ediziorako deia egiten duen 2009ko urriaren 29ko Aginduan ezarritakoarekin bat, eta Epaimahaiak, 2009ko azaroaren 18ko bilera-aktaren arabera, egin zuen proposamena kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Garapen-lankidetzarako «Ignacio Ellacuría» saria, 2009koa, Euskadiko GGKEen Koordinakundeari ematea: aitortu egin nahi zaio azken hogei urte hauetan garapenerako lankidetzaren esparruan egin duen ibilbidea eta, orobat, garapenerako heziketa eta boluntariotza sustatuz Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko hesia gainditzeko euskal gizartean egin duen sentsibilizazio-lana. Sari hau euskal GGKE bakoitzak egiten duen lanaren aitorpen inplizitua ere bada, horiek guztiek egindakoari esker gero eta hedatuagoa eta ezagunagoa gure garapenerako lankidetza.

Bigarrena.– Saritzat oroigarrizko arte-lan bat eta 15.500 euroko zenbateko gordina emango da, sariaren deia egiten duen aginduaren bigarren oinarriaren arabera.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, honen berri denek izan dezaten, eta betiere saria jasoko duen pertsonari edo erakundeari berariaz egin beharreko jakinarazpenaren kaltetan izan gabe, hala ezartzen baitu 9.2 artikuluan Garapen-lankidetzarako «Ignacio Ellacuría» saria sortu eta arautzen duen azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuak.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 20a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

834

ORDEN de 20 de noviembre de 2009, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se resuelve la concesión del Premio «Ignacio Ellacuría» de cooperación al desarrollo para 2009.

De conformidad con lo establecido en el Decreto 189/2008, de 18 de noviembre, que instituye el Premio «Ignacio Ellacuría» de cooperación al desarrollo, así como en la Orden de 29 de octubre de 2009, por la cual se convoca dicho Premio para 2009, y en función de la propuesta realizada por el Jurado, según el Acta de su reunión celebrada el día 18 de noviembre de 2009,

RESUELVO:

Primero.– Conceder el Premio «Ignacio Ellacuría» de cooperación al desarrollo para 2009 a la Coordinadora de ONGD de Euskadi, en reconocimiento a su trayectoria en el mundo de la cooperación para el desarrollo a lo largo de los últimos veinte años, así como a su labor de sensibilización en la sociedad vasca para la superación de las barreras Norte-Sur, mediante la promoción de la educación al desarrollo y el voluntariado. Se trata también de un reconocimiento implícito a la labor de cada una de las ONGD vascas, todas ellas contribuyen a que nuestra cooperación al desarrollo sea cada vez más extendida y reconocida.

Segundo.– Dicho Premio está dotado, en aplicación de la Base segunda de la Orden que lo convoca, con la entrega de una obra artística conmemorativa y una cantidad bruta de 15.500 euros.

Tercero.– Ordenar la publicación de la presente Orden, para su general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de la notificación individualizada a la entidad o a la persona premiada conforme a lo estipulado en el artículo 9.2 del Decreto 189/2008, de 18 de noviembre, por la que se regula el Premio «Ignacio Ellacuría» de cooperación al desarrollo.

Cuarto.– Contra la presente Resolución cabrá interponer recurso de reposición en el plazo de un mes desde su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de noviembre de 2009.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.